

XX/ 2019 DEKRETUA, XXXXaren XX(e)koa; horren bitartez, Natura 2000 Sareko Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua den Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onesten da eta Armañon Parke Naturalaren mugak aldatzen dira.

Irailaren 19ko 175/2006 Dekretuaren bidez, Armañongo Baliabide Naturalak Antolatzeko Lehen Plana (NBAP) onartu zen, eta irailaren 19ko 176/2006 Dekretuaren bidez, Parke Natural izendatu zen.

Bestalde, otsailaren 16ko 25/2016 Dekretuaren bitartez, Armañon Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2130001) izendatu zen, eta KBE horretan dauden habitat natural eta espezie moten eskakizun ekologikoen araberako kontserbazio-neurriak eta helburuak onetsi ziren.

25/2016 Dekretu horren Azken Xedapenetatik Lehenengoa betez, KBEaren mugaketa aldatu egin zen Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen Zerrenda onartzen duen Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakian aipatzen den mugaketari dagokionez; mugaketa-aldatze hori 2018ko maiatzaren 18ko Aginduaren (EHAA, 100. zk., maiatzaren 25ekoa) bidez gauzatu zen eta, horren bitartez, Batzordearen 2018/40 Erabakia jakinarazi zen, zeinaren bidez onartzen baita eskualde biogeografiko atlantikoko Batasunaren garrantzizko lekuen hamaikagarren zerrenda eguneratua. Horrenbestez, EAEk Armañon KBEaren mugaketaren aldagetari buruz proposatutako aldaketak ontzat eman dira.

Armañongo lurralde-eremuak naturagune babestuen tipologia bikoitza biltzen duenez, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (hemendik aurrera NKLTB) 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezartzen badira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak koordinatu beharko dira dokumentu bakar batean biltzeko, eremuaren kudeaketa-plana izango dena, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek batasun koherente bat osatzeko.

Horregatik, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko uztailaren 13ko Agindu bidez hasiera eman zitzaion Armañon Naturagune Babestuaren Natura-baliabideak Antolatzeko bigarren Plana landu eta prestatzeko prozedurari, bai eta, Kontserbazio Bereziko Eremuari egokitzuz, Parke Naturalaren mugak aldatzekoari ere.

Armañon Natura 2000 Sarean sartzearen ondorioz, naturagune babestu horren kontserbaziorako irizpideak eta helburuak aldatu egin dira Parke Naturalaren figurarekin alderatuta; beraz, NKLTBaren 5.2 artikuluari jarraikiz, Armañongo Natura Baliabideen Antolamendurako beste plan bat egin behar da, lehenengo NBAPa onartu zenetik igaro den denbora ere aintzat hartuta.

NBAP berria egiteko, landa-lanaz gain, Parke Naturalaren lehenengo NBAParen edo KBEa izendatzeko Dekretuaren edukia kontuan izan da. Gainera, mota guztietako iturrietatik bildu



ahal izan den informazio guztia ere baliatu da, organo kudeatzailearen jarraipen-memoriak barnean hartuta.

Alabaina, dokumentua Europako zuzentzaruetara egokitu ostean, Natura 2000 Sarearen betekizunak bete behar dira, hau da, jarraipen-sistemak ezartzeko betekizuna eta Batasunaren interesekoak diren espezie eta habitaten kontserbazio-egoeraren ebaluazioak egiteko eta egoeraren berri aldizka emateko betekizuna; jarraipen eta ebaluazio horiek Batasun osorako ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera egin behar dira, baina lehenengo NBAPan nekez aplikatu zitezkeen metodologia eta parametro horiek, natura-baliabideen deskribapenari eta diagnostikoari buruzko 2. eta 3. idatz-zatietan ez baitzegoen egungo ebaluazio-irizpideak aplikatu ahal izateko beharrezkoa den informaziorik.

Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu eta Parke Natural den aldetik, NBAP berri honetan bi figura horien betekizunak txertatzen dira baina, horretaz gain, ez dugu ahaztu behar Armañon Euskal Autonomia Erkidegoko Naturagune babestuen sarean sartuta dagoela eta, NKLTBaren 11.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, sare horren helburuetako bat naturagune babestu horien kudeaketa-sistema orokorrak koordinatzea dela. Helburu hori betetzen laguntzeko, Armañongo NBAP berriak babestutako bost naturaguneetarako diseinatutako egitura eta eduki komunak biltzen ditu; bost naturaguneetako NBAP berriak izapidetzen ari dira eta guztiak ere parke naturalak eta Natura 2000 Sarean sartutako eremuak dira.

NBAP berri horietan egitura eta eduki komunak ezartzeak, zonakatzea barne, ahalbidetzen du dokumentuen koherentzia hobetzea, bereziki eremuen zonakatzeari dagokionez (Naturagune Babestu osoan 30 zona mota izatetik 14 zona izatera igaro da); era berean, ahalbidetzen du antzekoak diren eta eremuen artean konpara daitezkeen erregulazioak eta administrazioak esku hartzeko araubidea ezartzea, baita plangintzaren eta kudeaketaren arteko oreka hobetzea ere.

Natura-ondarearen balioei dagokienez, NBAP honen memoriak osatzen, laburbiltzen eta eguneratzen ditu otsailaren 16ko 25/2016 Dekretuaren II. eranskineko 1. idatz-zatitik 5.era bitartekoak (Armañon KBEari dagozkion informazio ekologikoa, araudia, kontserbazio-helburuak, eta jarraipen-programa biltzen dituen dokumentua), eta NBAPetako xedapenei buruz NKLTBaren 4.2 artikuluan ezarritakoa betetzen du, baita Natura 2000 Sareko eremuei buruz NKLTBaren 22.4 artikuluan ezarritakoa ere.

NBAPak ez du ezartzen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa legez egin behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua; hortaz, orain ez da ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren prozedura egin behar, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz.

Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onesteko prozedura 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz egin da; 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegiatar joateko eskubideak arautzen dituen da.

Aurreko guztia kontuan izanik eta, alde batetik, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen testu bateginean eta, bestetik, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa betez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 201X(e)ko XXXXXaren XX(e[a])n egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua. – Xedea eta helburua

1. – Dekretu honen xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoan Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Parke Naturala den Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako bigarren Plana onestea, betiere 1/2014 Legegintzako Dekretuaren –Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina (NKLTB) onartzen duenaren– 18. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. – Natura Baliabideen Antolamendurako Plan honen xedea da, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Parke Natural gisa, Armañon Naturagune Babestuaren babes, kontserbazioa, hobekuntza eta zentzuzko erabilera bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezartzea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Armañon Naturagune Babestuan biltzen den eremu geografikoa Dekretu honen I. eranskineko mugaketa-mapan grafiatuta dago, eta 3.004,07 ha-ko azalera hartzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Turtzioz eta Karrantza udalerrietan.

3. artikulua.- Armañon Naturagune Babestuaren mugak aldatzea

Armañon Parke Naturalaren mugak aldatu dira, 2. artikuluan xedatutako Naturagune Babestuaren eremuarekin bat etor daitezen.

4. artikulua.- Planaren edukia

1. Dekretu honen I., II. eta III. eranskin gisa, kartografia, memoria eta arau-zatia argitaratu dira; horiek guztiak, alde batetik, Parke Naturalerako xedapenak dira –NKLTBaren 4.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz– eta, bestetik, KBEaren kontserbazio-neurriak eta helburuak –NKLTBaren 22.4 artikuluan ezarritakoaren arabera–.

2. Araudiaren I. eranskineko eta III. eranskineko Naturagune Babestuaren mugaketa, zonakatze, eta babes-eremu periferikoko mapek arau-izaera daukate.

3. I. eranskineko eta II. eranskineko (Memoria, Naturagune Babestuaren egungo egoeraren diagnostikoaren sintesia biltzen duena) EUNIS habitat- eta Batasunaren intereseko habitat-mapak informazioa emateko baino ez dira; Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren, natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloan eskuduna den sailaren webgunean eguneratuko da Armañoni buruzko fitxa, sail horrek informazio osatuagoa du eta.

5. artikulua. – Naturagune Babestuaren babes-eremu periferikoa

Naturagune babestuaren balioak babesten laguntzeko eta kanpotik etor daitezkeen inpaktu ekologiko eta paisajistikoak saihestearren, babes-eremu periferiko bat ezarri da. Eremu hori Dekretu honen I. eranskineko mapan grafiatuta dago.

6. artikulua. – Eragin sozio-ekonomikoko eremua.

Armañon Naturagune Babestuaren eta bere Babes Eremu Periferikoaren eragin sozioekonomikoko eremua honako udalerrri hauek osatzen dute: Turtzioz eta Karrantza, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

7. artikulua. – Hedadura

1.- NBAP honen xedapenak lurraldea, hirigintza eta natura-baliabideak antolatze eta, oro har, antolamendu fisikorako tresnei gailentzen zaizkie, eta beste edozein jarduketa, plan edo programa sektorialetan erabakigarriak izango dira; Natura Baliabideen Antolamendurako Planen edukari aurka egin ahal izango diote edo eduki hori ez jasotzeko aukera izango dute baldin eta lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak badira eta, kasu horretan, erabakia arrazoitut egin beharko da eta jendaurrean jarri.

2.- Lurraldea, hirigintza eta natura-baliabideak antolatze eta, oro har, antolamendu fisikorako tresnak NBAParekin kontraesanean baldin badaude, NBAPera egokitu beharko dira. Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, NBAParen xedapenak aplikatuko dira, nolanahi ere, tresna horiei gailenduta.

8. artikulua.– Indarraldia.

Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren indarraldia mugagabea izango da.

LEHEN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da irailaren 19ko 175/2006 Dekretua, Armañongo Natur Baliabideak Antolatze Plan onartzen duena.

BIGARREN XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Armañon Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2130001) izendatzen duen otsailaren 16ko 25/2016 Dekretuaren honako atal hauek indargabetu dira: 1. artikulua 4. zenbakia, azken xedapenetatik lehenengoa eta II. eranskineko 6. ,7. eta 8. zenbakiak, KBEa kontserbatzeko helburu eta neurri buruzko dokumentuari dagozkionak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Armañon Parke Naturala jotzen duen irailaren 19ko 176/2006 Dekretuaren 3. artikulua aldatu da. Orain, honela idatzita geratuko da:

“3. artikulua. Lurralde-eremua

1. – Armañongo Parke Naturalean sartzeko eremu geografikoa indarreko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren grafiatuta dagoena da.

2. – Armañongo Parke Naturalak 3.004,07 ha-ko azalera hartzen du, honako udalerrri hauetan: Turtzioz eta Karrantza, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

1.- Armañon aldea Parke Naturaltzat jotzen duen irailaren 19ko 176/2006 Dekretuaren 7.3 artikulua aldatu da. Orain, honela idatzita geratuko da:

“Patronatuko kide izango dira honako hauek:

Patronatua Bizkaiko Foru Aldundian gune babestuak kudeatzeko eskumena duen saileko foru diputatua izango da, eta presidente gisa jardungo du. Gainera, kide hauek izango ditu:

- a) Eusko Jaurlaritzan natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen saileko ordezkari bat; sailburuak izendatuko du.

2.- Armañon aldea Parke Natural izendatzen duen irailaren 19ko 176/2006 Dekretuaren 8.1. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

“Patronatuaren barruan eta haren mende, batzorde iraunkor bat eratu ahal izango da. Batzordeak Patronatuak eskuordetuta jardungo du, eta Patronatuko presidentez gain, batzorde iraunkorraren beraren presidentea izango dena, honako hauek izango dira kide:

- Eusko Jaurlaritzan natura-baliabideen antolamenduaren eta naturaren kontserbazioaren arloko eskumenak esleituta dituen saileko ordezkari bat; sailburuak izendatuta.
- Parkearen kudeaketaz arduratzen den foru-organoaren ordezkari bat.
- Naturagune Babestuaren eremuko udalen ordezkari bat.
- Patronatuan parte hartzen duten gainerako erakundeen ordezkari bat.
- Parkeko kontserbazio-zuzendaria.
- Patronatuko idazkaria.”

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko XXXXaren XX(a).

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,

Ignacio Maria Arriola López

XXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

KARTOGRAFIA

Mapa arautzaileak: (bisorea zabaltzeko esteka)

- Mugaketa
- Zonakatzea
- Babes-eremu periferikoa

Informazio-mapak: (GeoEuskadi zabaltzeko esteka)

- Habitaten mapa, EUNIS sailkapen-sisteman
- Batasunaren Intereseko Habitaten mapa

XXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren MEMORIA

XXXXaren XX(e)ko XX/ 2018 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

Armañon Naturagune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren ARAUDIA